



## 2019ko zezeilaren 28ko osoko bilkuraren ohiko saioa

### Bertaratutakoak:

#### Alkate-Udalburua:

Jon Xarles Idirin Gorrotxategi jauna (EAJ/PNV)

#### Bertaratutako Zinegotziak:

Montserrat Petralanda Gorrotxategi andrea (EAJ/PNV)

Unai Larrabide Ipiña jauna (EAJ/PNV)

Pabxi Abrisketa Olabari jauna (EAJ/PNV)

Ana Belen Alberdi Eguiluz andrea (EH-Bildu)

Kepa Mirena Pérez Urraza jauna (EH-Bildu)

Aitor Urieta Guijarro jauna (EH-Bildu)

Itsaso Muruzabal Elezkano andrea (EH-Bildu)

#### Bilkura ezin duela etorri jakinarazi duenak:

Roberto González de Etxabari Arandia jauna (EAJ/PNV)

**M<sup>a</sup> Teresa Camarero Sanchez** idazkariak ekitaldiaren fede emanaz, Udalbatza honen Ohiko Batzarra izan da **lehenengo deialdian**. Goizaldeko **10:00 direla**, Batzarra irekitzat jo da, behin hasteko behar den quoruma dagoela egiaztatuta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.c) artikuluekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuko 90. artikuluekin bat etorritik. Ondoren, gai zerrendako gaia aztertu da.

#### 1.2018KO AZAROAREN 1SEKO ETA 29KO AKTAK ONARTZEA.

Alkate jaunak galdetu du ea Zinegotzirenen batek, 2018ko azaroaren 1seko eta 29ko aktak direla-eta, esateko ezer ote duen.

Ez denez alegaziorik izan, Aktak **aho batez** onartu dira.

#### 2. 2018/220 - 2019/25 ZENBAKIEN ARTEKO ALKATETZA-DEKRETUEN BARRI EMOTEA.

AJAren 42. artikuluan zehaztutakoa betez, alkate jaunak laburrean jakinarazi dio Udalbatzari ze ebazpen eman diren azken Batzarretik, eta Udalbatza honakoen jakinaren gainean geratu da:

**2.1. Alkatetzaren 253/2018 Dekretua.** Eginbideen amaiera ebaztea, APROVA Alkarte Animalistaren salaketa jarduketak artxibatuz.

**2.2. Alkatetzaren 254/2018 Dekretua.** Solabxiko bidea erabilteko baimena emotea, egurra atarateko.

**2.3. Alkatetzaren 255/2018 Dekretua.** Elorriebietako bidea erabilteko baimena emotea, egurra atarateko.

**2.4. Alkatetzaren 256/2018 Dekretua.** Zeberioanako bidea erabilteko baimena emotea, egurra atarateko.

**2.5. Alkatetzaren 257/2018 Dekretua.** Areiltza auzoko 4. Zenb. eraikinaren erreteilarako obra-baimena emotea.

**2.6. Alkatetzaren 258/2018 Dekretua.** Desgaitasuna daukien pertsonentzako aparteko txartela emotea.

**2.7. Alkatetzaren 259/2018 Dekretua.** Banantze- eta taldekatze-lizentziak emotea.

**2.8. Alkatetzaren 260/2018 Dekretua.** Olatzar auzoko e zenb. etxebizitzaren garajerako sarbidea bardintzeko eta inguruan hesia eta gidaridun atea jartzeko obra-baimena emotea.

**2.9. Alkatetzaren 262.1/2018 Dekretua.** 2018ko 4. Hiruhileari jagokan Hondakin Solidoak Batzeko Zerbitzuaren Errolda onartzea eta berau 15 eguneko epean jendeaurrean jartea.



**2.10. Alkatetzaren 262/2018 Dekretua.** 2018ko urtarriletik maiatzera bitarteko hilabetei jagoken aiketa fisiko eta hipopresibo ikastaroko zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa onartzea.

**2.11. Alkatetzaren 263/2018 Dekretua.** 2018ko urriko hilabetei jagokon ariketa fisiko eta hipopresibo ikastaroko zerrenda eta diru-laguntza zenbatekoa onartzea.

**2.12. Alkatetzaren 264/2018 Dekretua.** 1.849,07 €ko ordainketa zerrenda onartzea.

**2.13. Alkatetzaren 265/2018 Dekretua.** 3.929,24 €ko ordainketa zerrenda onartzea.

**2.14. Alkatetzaren 266/2018 Dekretua.** Ugaoko kiroldegiko abonamenduei jagoken diru-laguntza emotea, 921,00 €koa.

**2.15. Alkatetzaren 267/2018 Dekretua.** Kredituak aldatzeko espedienteta onartzea, "3/2018 zenb. kreditu gaikuntza, 11.950,22 €koa" modadidearen bidez.

**2.16. Alkatetzaren 268/2018 Dekretua.** HAPOak egindako hots-inpaktuaren azterketa berrikusteko lanen 129/2018 zenb. faktura onartzea, 4.235,00 €koa.

**2.17. Alkatetzaren 269/2018 Dekretua.** Olatxu inguruan erreka ezkerreko ezponda egonkortzeko lanen 129/2018 zenb. faktura onartzea, 7.335,02 €koa.

**2.18. Alkatetzaren 271/2018 Dekretua.** 631,40 €ko faktura zerrenda onartzea.

**2.19. Alkatetzaren 1/2019 Dekretua.** 2018ko zemendiko eta abenduko ariketa fisiko eta hipopresibo ikastaroari jagokon diru-laguntza onartzea.

**2.20. Alkatetzaren 2/2019 Dekretua.** Ugaoko kiroldegirako diru-laguntza onartzea.

**2.21. Alkatetzaren 3/2019 Dekretua.** Ez betetzeagatiko laugarren isun hertsatzailea jartea.

**2.22. Alkatetzaren 4/2019 Dekretua.** 16.328,06 €ko ordainketa zerrenda onartzea.

**2.23. Alkatetzaren 5/2019 Dekretua.** Hesiak eta kartela kentzeko agintzea.

**2.24. Alkatetzaren 6/2019 Dekretua.** Presalde auzoko 1. zenbakian dagoen gordetoki-aparkalekuaren estalkia birgaitzeko obra-baimena emotea.

**2.25. Alkatetzaren 7/2019 Dekretua.** Herriko Taberna ustiatzeko administrazio-baldintza agiria onartzea.

**2.26. Alkatetzaren 8/2019 Dekretua.** Hurrako Denda ustiatzeko administrazio-baldintza agiria onartzea.

**2.27. Alkatetzaren 9/2019 Dekretua.** Ikastetxeko «espazio irekietan eta barrukoetan hobekuntzak eta saneamentuaren instalazioan esku-hartzea» izeneko proiektua onartzea.

**2.28. Alkatetzaren 10/2019 Dekretua.** B-7045-CS matrikuladun ibilgailua trakzino mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzetik salbuetsizat jotea.

**2.29. Alkatetzaren 11/2019 Dekretua.** «Zeberio HAPOaren berrikuspenean egindako hots-inpaktuaren azterketa» lanak jentaurrean jartea.

**2.30. Alkatetzaren 12/2019 Dekretua.** Elorriebietako bidea erabilteko baimena emotea.

**2.31. Alkatetzaren 13/2019 Dekretua.** Larrakoetxeko 2. zenbakidun baserria balizetea.

**2.32. Alkatetzaren 14/2019 Dekretua.** Uriondoko bidea erabilteko baimena emotea.

**2.33. Alkatetzaren 15/2019 Dekretua.** 3. poligonoko 10 partzelan dagoen lursaila garbitzeko agintzea.



**2.34. Alkatetzaren 16/2019 Dekretua.** Aparteko Osoko Bilkura deitza 2019ko zezeilaren 8rako.

**2.35. Alkatetzaren 17/2019 Dekretua.** Langileen aurrerapenei jagokon partida 2019ko aurrekontuko gastuen partidari sartzea.

**2.36. Alkatetzaren 18/2019 Dekretua.** Udali horma-hobi baten ehorzketa bat baimentzea.

**2.37. Alkatetzaren 19/2019 Dekretua.** Desgaitasuna daukien pertsonentzako aparketako txartela emotea.

**2.38. Alkatetzaren 20/2019 Dekretua.** Desgaitasuna daukien pertsonentzako aparketako txartela emotea.

**2.39. Alkatetzaren 22/2019 Dekretua.** Aparteko Osoko Bilkura deitza 2019ko zezeilaren 15erako.

**2.40. Alkatetzaren 23/2019 Dekretua.** Egiako 3. eta 5. zenbakietako eraikinean hainbat jarduketa preminaz egiteko eskatzea.

**2.41. Alkatetzaren 24/2019 Dekretua.** Gizarte-larrialditako laguntza emotea.

**2.42. Alkatetzaren 25/2019 Dekretua.** 2019ko zezeilaren 15eko Aparteko Osoko Bilkura bertan behera iztea eta 2019ko zezeilaren 18rako deitza.

Dokumentazioa bialtzerakoan egondako akats baten ondorioz, EH-Bildu udal taldeko zinegotziek ezin izan dabez ikusi 220tik 252. zenbakira arteko dekretuak, ez eta 261, 270 eta 21 zenbakidunak; hori holan, alkate jaunak egingo dan hurrengo osoko bilkuran jakinaraziko dauz.

### **3. 2019ko MARTIAREN 8ari BURUZKO ZEBERIOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Unai Larrabide zinegotziak azaldu dau osoko bilkurari aurkezten jakon adierazpen instituzionala EUDELEk adostutako testu bat dala; horrez gain, programatutako ekintzen barruan kontzentrazino bat egingo dela plazan 10:00etan, eta 12:00etan, aldiz, eskualdeka egingo dirala kontzentrazinoak Ugaon, Igorren edo Bilbon. Jarraian, adierazpenean jasotako akordioak irakurri dauz.

Ana Belen Alberdi zinegotziak esan dau ondo dagoela, bere garaian Roberto Gonzalez de Etxabari zinegotziak bialdu eutsola, eta beraiek be euren eukien arren, azkenean bateragarria dala mezua eta ontzat emon dabela. Baina lehenego puntuaren ganean badaukie zeozer esateko... *"Zeberioko Udalak bere gan hartzen dau benetako bardintasun eraginkorra bermatuko daben politika publikoak aurrera eroateko erantzukizuna"*. Uste dabe hori aurrekontuekaz zuzenean lotuta dagoela eta, azkenean, gauza horreek egin ahal izateko, tresna eraginkorrena aurrekontuak dirala. Udali aurrekontuak orain dala gitxi onartu dira eta aspaldiko aktak orain onartzeak bere abantailak ere badaukaz, zemendiaren 29koan 2017ko Gizarte Kutxako soberakina gizarte gaietarako erabilteari buruz berba egin zan, eta gerakin lez gelditu ahal zala, holan geratu ezker galtzeko arriskua egoala, etab. esan zan hemen. Kontua da zelan jardun diru hori erabilteko, eta, bere taldearen ustez, helburu jakin bat eta gizarte gaiak jorratzeko berariazko borondatea izan behar dauz Gobernu Taldeak. Azken finean, honeek dira gaiak eta dirua egon badago. Bere buruari galdetzen deutso zer egin daitekeen gizarte gaitan. Egia da arazo zehatz bat dagoela: emakumeek beste pertsona batzuen zaintzapean bizi behar dabe, eta baldintzatuta dagoz zentzu askotan. Hori guztia, politika publikoak neurri zehatzak hartzera bideratu behar dira, horretarako dirua behar da eta aurrekontuetan islatu behar da. Hau baino ez neban esan nahi. Beste gai batzuetan bezala, informazioa eskatu dabe, Bardintasun Saila eratu zan, bardintasun teknikari bat dago. Hiru urte igaro dira Bardintasun Plana onartu zanetik, agian balorazino bat egiteko eta zer lortu dan jakiteko garaia da, zer dagoen egiteke, zeintzuk izan beharko litzatekezan lehentasunak, etab. Ondo dago egun horretan



mobilizazio bat egitea herrian, baina haratago joan behar da eta gauza horreek aurrekontuetan agertu behar dira.

Alkate jaunak erantzun dau, Alberdi zinegotziak dakien lez -alkate izan baitzan lau urtetan-, diru bat iristen danean, kasu honetan Gizarte Kutxarena, ezin dala gai jakin baterako erabili, kopuru hori poltsa batera joaten baita eta hurrengo aurrekontuetan barriro be urten egiten da. Kontuan izan behar dau Udalak hori baino diru gehiago erabili ebala gizarte gaietarako. Dezente gehiago. Ezin dau eta jakin beharko leuke, berak Udala kudeatu baitau lau urtetan. Sartzen diran diruak poltsa batera joaten dira. Inoiz be ez da esan gerakina galtzeko arriskua dagoenik.

Alberdi zinegotziak adierazi dau ez dala eztabaida teknikoan sartuko.

Alkate jaunak esan dau diru kutxa batera joaten dala eta, ostean, handik urtetan dala. Ezin da gai baterako edo beste baterako ezebez gorde. Ez da legezkoa.

Alberdi zinegotziak adierazi dau ez dala eztabaidan sartuko. Alkateak onartu dauazan aktetan jasotakoa baino ez dau esan. Beste barik. Beste puntu baten dagoz eta, bere ustez, han ageri dana lehenetsi behar da. Hori adibide lez jarri dau. Esan nahi dauana da dirua jarri behar dala gizarte gaietarako eta dirua egon badagoela, ezebez gehiago, eta hori aurrekontuetan islatu behar dala.

Eztabaidaren ostean, Zeberioko Udalak **aho batez** onartu dau martiaren 8ko adierazpen instituzional hau:

## **2019ko MARTXOAK 8 ERAKUNDE-ADIERAZPENA BIZITZAK ERDIGUNERA!!!!**

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako emakumeen lan etenaldi deialdiari eman zion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borroka atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, "**Bizitzak Erdigunera**" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta *Bizitzak Erdigunear* jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunear jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrak izan daitezten. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enplegutako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Zeberioko Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- Zeberioko Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzeko duten politika publikoak burutzeko.



- Zeberio Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

- Zeberio Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

#### **4. ALKATETZAREN TXOSTENAK.**

**4.1. Panel informatiboak.** Alkateak jakinarazi dau udaletxearen aurrealdeko eta atzeko fatxadetan euskarri batzuk jarten ari dirala, informazino-panel batzuk jartzeko, orain dagoenak urteak baitaroaz txarto funtzionetan.

Aitor Urieta zinegotziak galdetu dau ea zelako kostu dakarren eta mantenua behar daben; izan be, gogorarazi dau egungo arazoa garai hartan ezarri eban enpresak mantentze-kontratu bat eskaintzen ebalá, eta nahiko garestia zala. Horregaitik galdetu dau ea gaur egungoen mantentze-lanak udalak egin ahal dauazan edo enpresa bat euki behar dan.

Alkateak erantzun dau kostua 8.000 euro ingurukoa dala, BEZ barne, eta ez dabéla mantenerik behar, fatxadatan dagozanez zuzenean ordenagailura doazelako, bulegoetatik kudeatzen dira, eta laguntza teknikoren bat behar izanez gero, edozein teknikari kontratau ahal da. Enpresa batek be ez dauka eskusibotasunik.

#### **5. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

**5.1. Alkatezaren 5/2019 Dekretua.** Dekretu honen bitartez, egun bateko epean hesiak kentzeko, 3,50 metroko pasabide librea itziz, eta udal titulartasuneko bidean dagoen "JABEGO PRIBAUUA" testua daukan kartela kentzeko eskatzen jako Piedad Ayesta Larracochea andreari. Alberdi zinegotziak gai honen egoeraren ganeko informazinoa eskatu dau.

Alkate jaunak erantzun dau auzokideari bere etxera sartzea eragozten eutson kate bat jarrita egoala. "Jabego pribauua" idatzita egoan kartela kendu eta Udala epaiketara eroan eban.

Kepa Perez zinegotziak galdetu dau ea horregaitik edo zubikoagaitik izan zan.

Alkate jaunak erantzun dau bere ahizpagaz daukiela zubiko kontua, zubian jarrita daukan itxitura kentzeko aginduko jako.

Kepa Perez zinegotziak erantsi dau jabego pribauarena be baietz.

Alkate jaunak esan dau kontu honek be epaitegian amaituko dauela. Ganera, alde bitan jarrita dauka, zubian eta mendian. Kentzeko aginduko jako, eta ez dauanez kenduko, udala joan eta era subsidiarioan kenduko dau.

**5.2. Hurrako Dendaren eta Herriko tabernaren esleipenak.** Alberdi zinegotziak dendaren eta tabernaren esleipenaren inguruan galdetu dau.

Alkate jaunak erantzun dau barriro be zabalik dagoela eta martiaren 7an amaitzen dala eskaintzak aurkezteko epea.

**5.3. HAPO.** Ana Belén Alberdi zinegotzi andreak HAPOaren ganean galdetu dau Alkate jaunak erantzun dau martiaren 13rako batzar bat aurreikusita daukiela idazketa taldeko kide dan Amaia Albenizegaz. Joan dan barikuan Udal Arkitektoak egin eutson eskaera bati buruz informetako geratu zan, baina ez ziran batzartu. Arkitektoak posta bat bialdu eutson biharko, barikurako, izan ahal zan ikusteko, eta telefonoa hartzen badau bai, bestelan barriro be deitu egin beharko jako. Hartzen badau. Behin eta barriro deitu jako baina ez dau hartzen eta, azkenean, beste telefono batetik deitzen hasi gara.



URaren txostena laster baten helduko dala uste dogu, eta berehala egin nahi dira egin beharreko aldaketak. Prestatzen egozala esan eben eta ea egia dan. Eskuarlean dogunean osoko bilkurara eroango da.

Gai honi jagokonez Urieta zinegotziak esan dau, berak zera ulertzen dauala akta irakurri ondoren: URAk Udalarari sufriaraziko eutsola esan ebala, Udalak atzerapenagaz emon ebalako informazino bat.

Alkate jaunak erantzun dau holan jakinarazi eutsela telefonoz.

Urieta zinegotziak generatu dau lotsagarri iruditzen jakola erakunde batek holan jardutea. Antza danez, atzerapen bat egon zan, gaur egun berak oraindino ulertzen ez dauena, izan be, bere garaian, arkitektoak esan ebanean eskatu egin ebela udalebtean ez zan dokumenturik agertu. Ezdau ulertzen zer gertatu zan, baina, dana dala, akats bat izan zan. Ez daki. Agian teknikariari galdu egingo jakon... baina bardin da. Ez zan atzeratzeko borondaterik egon, eta URAk atzeratzeko asmo hori esplizitu egitea lotsagarri eta onartezin begitantzen jako. Udalak prezio bat ordaindu dau erakunde lez, bere garaian izapide bat egin baitzan. Bada, egin daiela beraien lana eta kitto. Ume txikiak izango balitzazen moduan zigortu egingo dabezala esatea. Berarentzako URaren eta honen funtzionamenduaren irudi txarra (argazki zatarra)da.

Alkate jaunak dino ez dala hori bakarrik. URaren funtzionamendua kontu guztietan. Txarra da. Ez daki URAgaz gatazkan ez dagoen udalik egongo ete dan Bizkaian.

Urieta zinegotziak uste dau hori agian azaldu beharra dagoela. Beraiek alkatetzan egon ziranean be izan ebezan gorabeherak URAgaz. Suteegi birgaitu zanean txarto ulertze bat egon zan, bidearen proiekturako URaren aurreko balorazino bat nahikoa izango zala ulertu ebalako aurreko arkitektoak. Ezetz esan eta gelditu egin eben. Gobernu Taldeak hitzordua eskatu eban gaia argitzeko eta hilabeteetan egon ziran arduradunaren zain. Goiz libera hartu eben danak joateko: alkatea, arkitektoa, alkateordea... eta ez ebezan hartu. Gauza bat da atzerapenak lan tekniko bat zailtzea, baina kapritxo udal bat zigortzen ari dirala argi eta garbi esatea, onartezina iruditzen jako. Kexa publikoki adierazten dauen idazki serio bat egitea eskatuko neuke.

Alkate jaunak erantzun dau euskerazkoa izena baino ez daukala. Bere ustez lege guztiak Oviedon ezarritakoak dira.

Urieta zinegotziak esan dau gai konplexua dala eta badakiela eskumenak konplexuak dirala, baina beraiek egon ziranean tratua ona izan ez zan arren, gibxienez ez zala tratu txarren apologiarik egin. Ganera alkateari esan badeutsie honegaitik eta horregaitik zigortu egingo dabela.

Alkate jaunak argitu dau telefonoz izan zala. Interesgarria izango zan idatziz jasotea.

Urieta zinegotziaren ustez telefonoz esan dan arren, berba berba da eta balioa dauka. Esan badabe erantzun bat behar dau.

Urieta zinegotziak galdetu dau ea zer aurreikusten dan 13ko batzarraren inguruan.

13koari jagokonez alkate jaunak erantzun dau badakiela zeintzuk diran eskatzen diran aldaketak, txostena falta dala, baina apur bat atzeratu arren, ondoren moldatuko ebela txostena. Aldaketa guztiak egin ostean batzorde batera eta, ostean, osoko bilkurara eroango litzateke. Azkenean onartu eta Aldundira igorriko litzateke.

Aitor Urieta zinegotziak adierazi dau horrek hurrengo legegintzaldira eroaten dauala,

Alkate jaunak ezetz erantzun dau, 13an badator, bere ustez, apirilean sartuko dala.

Maiatzaren 26an tokiko hauteskundeak egingo diranez apirilaren 25ean ohiko osoko bilkura egiteko aukerari buruz eztabaidatu da, eta idazkariak adierazi dau gaia argitzeko hauteskunde-egutegia begiratuko dauela.



Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du batzarra, 10:34 orduak direla; eta aztertutakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut Jon Xarles Idirin Gorrotxategi alkate jaunaren oniritziarekin, eta nire sinadurarekin egiaztatzen dut.

**O.E.**  
**Alkatea**

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Jon Xarles Idirin Gorrotxategi'.

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'O.E. Alkatea'.